
Moodle Plataforma, teknologia berria eredu zaharrekin. Esperientzia bat “Hiznet” on-line graduondokoan


Moodle-moot07 Konferentzian

J. Inazio Marko Juanikorena-k
aurkeztutako komunikazioa

UPV/EHU

Donostia, 2007/06/26

Moodle Plataforma, teknologia berria eredu zaharrekin. Esperientzia bat "Hiznet" on-line graduondokoan



Abiapuntuzko KEZKA:

- **Egun ohikoa da identifikatzea IKT teknologia berrien erabilera hezkuntza berrikuntzarekin**
- **Badirudi hezkuntzaren berrikuntza egon dadin, ezinbestean IKT teknologien garapena egon behar duela**
- **Eta, bestalde, badirudi sozializatu dela diskurtso bat zeinaren arabera IKTak erabiliz edota IKTen bidez garatutako formazio ekintzak berritzailetzat hartzen diren.**

Abiapuntuzko KEZKA:

- **Eta guk geure buruari galdetu diogu, unibertsitate alorreko formazioan komunikazio sistema gisa Moodle plataforma bezalako IKT teknologiak erabiltzeak berez hezkuntza praktikaren berrikuntza edota eraldaketa suposatzen ote duen.**
- **Bai baitago geure IKTen bidezko heziketa praktikan hainbat elementu afirmazio hori zalantzan jartzera bultzatzen gaituena.**

Hiznet Hizkuntza Plangintza graduondokoaren ezaugarriak:

- **Eusko Ikaskuntzak sustatua eta Asmoz Fundazioak eta UPV/EHUren Soziologia II Sailak antolatua**
- **Lantzen duen gaia Hizkuntza Plangintza eta Soziolinguistika**
- **On-line ikastaroa Moodle plataformarekin**
- **Erabat euskaraz bideratzen da**
- **2001ean hasi zen eta urtero batzbeste 60 ikasle ditu**

Hiznet Hizkuntza Plangintza graduondokoaren ezaugarriak:

- **290 ikastordu eskaintzen ditu. Ikasleak 200 ordu egin behar ditu ikasgaiak lantzen eta beste 50 amaierako proiektuarekin.**
- **Ikastaroa moduloka egin daiteke, gutxienez 70 ordu eta amaierako proiekturik gabe.**
- **26 ikasgai, 5 modulotan banatuak**
- **33 irakasle 0607 ikasturtea**
- **Urtean zehar lau saio presentzial**
- **Ikaslearen perfil profesionala euskara teknikariarena da**

Formazioaren antolaketa Hizneten:

- **Irakasleei bere ikasgairen edukia idatziz presta dezaten eskatzen zaie, argibide batzuk jarraituz: orri kopurua kredituen arabera eta idatz-arauak (formatuak, bibliografia, ..)**
- **Irakasleek prestatzen dute, bakoitzak bere aldetik, bere ikasgaiaren oinarrizko testua gehi material osagarriak (glosarioa, bibliografia, bibliografia iruzkindua eta loturak)**
- **Gehienbat test ariketan eta ikasleak egin beharreko lanean oinarritutako ebaluazioa presta dezan ere eskatzen zaio.**
- **Material hauek plataforman zintzilikatzen dira**
- **Irakasleak ez dute euren arteko harremanik edota koordinaziorik**

Eredu pedagogioa Hizneten:

Formazioaren antolaketa Hizneten:

- **Ikasleek plataformaren bidez ikasgai bakoitzaren materialak eskura ditzakete: oinarrizko testua eta material osagarriak**
- **Ikasleak ikasgai bakoitzeko materialak irakurtzen/ikasten ditu eta amaitzerakoan plataformaren bidez jarritako testa edota ebaluazio ariketa egiten ditu irakasleak balora ditzan**
- **Zalantzarik baldin badu edota zerbait komentatu nahi badu, ikasleak plataforma erabil dezake irakaslearekin harremanetan jartzeko**
- **Material hauek plataforman zintzilikatzen dira**
- **Ikasgai guztiak amaitzerakoan, ikasleak sakontze lan bat egin behar du tutore baten laguntzarekin**

Irakaskuntza/ikaskuntza Ereduak:

Enfoke tradizionala:

- Planteamendu magistralak
- Irakaslea ezagutzaren 'jabea'
- Edukietan zentratua
- Esposaketan oinarritutako metodologia
- Ikasleak jasole pasiboak
- Norbanakako lana
- Xedea: informazioa eta ezagutzak igortzea

Enfoke berritzaileak:


(teoria kritikoa, sozio-humanismoa, konstruktibismoa ..)

- Planteamendu kolaboratzaileak
- Irakaslea ikaskuntzaren erraztailea
- Irakasle-ikasle-edukien arteko elkar-ekintzan zentratua
- Metodologia anitzak eta egokituak
- Ikasleak aktiboak eta bere ikaskuntza prozesuaren eraikitzaileak
- Taldekako lana
- Xedea: ikaskuntza esanguratsua sustatzea eta gaitasunak eta trebetasunak garatzea

Eredu pedagogioa Hizneten:

Aldagai kritikoetan oinarritutako on-line formazioaren analisi-eskema:

(Cabero, 2006: 5)



Eredu pedagogioa Hizneten:

Hizneten analisia aldagai kritiko (batzuen) eskemaren arabera:

Edukiak: Ez dira egituratu inguruneari egokitutako eskema didaktikoa jarraituz (helburuak adierazi, interaktibitatea, hipertextuak, multimedia, kasuak, adibideak, ariketak ..). Irakasle bakoitzak bere estiloa jarraitu du, kasu gehienetan edukiak testu 'literarioen' bidez azalduz.

Irakasle rola: Informazioaren igorlea, zalantzak argituko dituen eta igorritako edukietan oinarrituz ariketak ebaluatuko dituen.

Ikasle rola: Edukien hartzaile pasiboa, edukiak asimilatzen ditu eta ondoren erreferentzia gisa erabiltzen ditu test-etan eta ebaluazio lanetan.

Estrategia didaktikoak: Ez dago estrategia didaktikorako planteamendu esplizitorik. Berez, testuen irakurketaren bidezko norbanakako formazio-estrategia ia bakarra aplikatzen da. Ahaztu gabe, hori bai, saio presentzialetako lan osagarria

Komunitatea: Ikastaroaren egiturak ez du komunitate sentimendua sortarazteko bide ematen, norbanakako formazio-estrategiak erabiltzen baitira eta ez ikaskuntza kooperatiboaren estilokaok.

Eredu pedagogioa Hizneten:

**Beraz, aldagai kritikoaren analisiaren arabera,
HIZNET graduondokoaren hezkuntza diseinuaren ezaugarriak
ondoko eredu pedagogikoari dagozkio:**



Enfoke TRADIZIOANALA

Eredu pedagogioa Hizneten:

Hobekuntza eta Hausnarketa planteamendua antolatzaileen aldetik:

Hizneteko arduradunen aldetik badago hobekuntzarako planteamendua eta, horren ondorioz, era honetako aldaketak bideratu dira:

- Saio presentzialen antolaketa
- Temariaren eta edukien eguneraketa
- Aldaketak plataforma informatikoan
- Komunikazioa sustatzeko ahalegina, kide guztientzat irekitako eta inongo ikasgaiarekin zuzenean lotu gabeko foro baten antolakuntzarekin.


Eta puntu ahulei buruzko hausnarketa ere egin da (Martinez de Luna, 2006: 91) :

- Bada ikasgairen bat nahi bezala bideratu ez dena: eduki interesgarria baina estilo latza duena.
- Ezin bideratu izan da, bestalde, ikasle-irakasleen arteko komunikazio-gune edo bilgunea egokia. Foroaren ekimenak porrot egin du.

Eredu pedagogioa Hizneten:

Hiru etapa oinarrizko e-learning-aren garapenean Salinasen arabera:

(Cabero, 2006: 4)



Aldaketa esperientzia:

Esperientziaren kontestualizazioa :

1. Esperientzia txiki hau lehen azaldutako Hiznet graduondokoaren markoan kokatzen da.

Ikastaro horretan 2,5 kredituko balioa duen ikasgai baten irakaslea naiz. Ez dut zuzendaritza organoetan parte hartzen.

Beraz, nire erabaki ahalmena ikasgaira mugatzen da.

2. Berrikuntza planteia daiteke era batera ala bestera:

Berringeniaritza
gisa

Hobekuntza Prozesu
gisa



3. Gure egoera kontuan hartuz, horrela planteatu dugu:

Aldaketa esperientzia:

Derrigorrezko FOROA partehartze eta ebaluaziorako estrategia gisa:

PLANTEAMENDUA:

- **Joan den ikasturtean nire ikasgaien aldaketa egin dut, ikasgaiaren ebaluazio-lanaren ordeztan foroan derrigorrezko partehartze-ariketa planteatuz.**
- **Zuzendariak proposamena onartu du.**
- **Eztabaida abiatzeko hiru galdera-giltza bota dira eta betebeharrari buruzko oinarritzko argibide batzuk eskani dira.**
- **Hortik aurrera debatea zabaldu da ikasleen parte-hartze zabalarekin.**

Aldaketa esperientzia:

Derrigorrezko FOROA partehartze eta ebaluaziorako estrategia gisa:

EMAITZAK:

- **Ikasgaian matrikulatutakoen arteko parte-hartze eta interakzio maila handia lortu da.**
- **Ikasleek oso ongi baloratu dute foroaren ariketa, planteamendu berritzaile eta beste ikasgaietan egindakoarekiko ezberdin gisa.**
- **Arlo positiboen artean azpimarratu dituzte:**
 - **Hausnarketa sustatzen du. Ez da ariketa bakarrera mugatzen. Partekatuz gehiago ikasten da. Ikuspegi berriak zabaltzen dira. Zalantzak argitzen dira. Publikoki idazteak hausnartzera eta fintzera behartzen zaitu eta honek ikaskuntza hobe ahalbideratzen du (“honengatik bakarrik merezi du) ...**

Aldaketa esperientzia:

Derrigorrezko FOROA partehartze eta ebaluaziorako estrategia gisa:

EMAITZAK:

- **Arlo ez hain positiboen artean azpimarratu dituzte:**
 - **Beldurra eta seguratsun eza foroan parte hartzeko. Debateetan nahasmendua. Komentario lerro askoren artean ildo baten falta. Gai gehiegi mezu berean. Zailtasun pertsonala ideiak antolatu eta foroan azaltzeko. Debatean erritmo falta ...**
- **Nire balorazioan hobetzeko bi arlo azpimarratzen dut:**
 - **Ikaslearen kalifikaziorako foroan parte-hartzeari buruzko balorazio-irizpideak.**
 - **Neure parte-hartzea foroaren moderatzaile, antolatzaile eta erraztaile gisa.**

Aldaketa esperientzia:

Derrigorrezko FOROA partehartze eta ebaluaziorako estrategia gisa:

EMAITZAK:


- **Esperientziaren balorazio positiboa kontuan hartuz, graduondokoaren arduradunek derrigorrezko foroaren metodologia ikasgai gehiagotara zabaltzea erabaki dute.**
- **Horrek aldaketa berriak bultzatuko ditu aspektu hauetan:**
 - **Lan egutegi eta erritmoen egokitzapena**
 - **Irakaslegoaren formazio egokitzapena**
 - **Plataformaren baliabideen egokitzapena**

Aldaketa esperientzia:

Etorkizunerako planteamendua:

Aurtengo ikasturtearen esperientzian eta balorazioetan oinarrituta, datorrenerako aldaketa diseinatzen ari naiz zentzu honetan:

- **Debatearen gaiak antolatu**
- **Talde lana sustatu**
- **Ebaluazio sistema hobetu**



Azken hausnarketa eta emaitzak:

- **Teknologia digitalek ez dakarte berez berrikuntza edota haustura pedagogikoa**
- **Hiznet bezalako on-line ikastaro batek berez dakarren berrikuntza batez ere komunikazio kanalarekin du zer ikusia. Berrikuntza honek hezkuntza eskaintzara iristeko aukera berriak eskaintzen ditu.**
- **Hiznet bezalako on-line ikastaroak ez badira hasi aurretik hezkuntza edota didaktika-antolakuntza eredu bat definitzera iristen, berezko joera ikasgelako hezkuntza eskema tradizionalak errepikatzea da, ahozko transmisio sistema magistralak idatzizko bide digitalen bidez erreproduzitzen; 'e-learning' egin beharrean 'e-reading' eginez.**

Azken hausnarketa eta emaitzak:

- **Plataformaren (Moodle-n) aukerak azpierzabiliak daude. Irakasleei eta ikasleei formazioa ematea ezinbestekoa da, baina ez plataformaren erabilerarako aspektu teknikoei buruz, baizik eta hezkuntza metodologia berrietan aplikatu daitezkeen plataformaren lanabes ezberdinen erabilerari buruz.**
- **Honek, orokorrean IKTeen eta partikulariki moodle-en inguruan formazio ikuspegi berriak lantzea suposatzen du.**